


# Maratoiak egiteko ez dago adinik

Inoiz ez da berandu kirola egiteko. Hortaz dexente dakite Juan Valdubieco eta Bernardo de Dios ermuarrek. Biek 50 urtetik gora dituzte egun eta urtean zehar 5 edo 7 maratoi egiten dituzte. Badira beste ermuar batzuk ere urtean zehar maratoiak egiten dituztenak baina ez hauek adina. Bien artean 70 maratoi inguru burutu dituzte eta mundu osoko kontinenteetan egonak dira.

**J**uan Valdubieco-k 52 urte ditu. Gazteagoa zenean, futbolari eta auto gidari izan zen. Duela 7 urte hasi zen maratoi lasterketan parte hartzen, Bernardo de Dios-en gomendioak jarraituz. Maratoiak egiteaz gain, 100 kilometroko probak ere egin izan ditu. 2008an adibidez, Aixola urtegiari 28

itzuli eman zizkion. Aurten 7 maratoi burutu ditu. Mundu osoko maratobietan hartu du parte, 5 kontinenteetan maratoiak amaitu dituzten 13 espainiarren artean dagoelarik. Maratoiaren duen markarik onena, 2 ordu eta 55 minututakoa du. Asteazkenean 100 kilometro inguru egiten ditu entrenamenduetan eta Berline-



ko maratokia du gustokoen. Familiak ere laguntzen dio maratoiak dituen lurraldeetara eta haien babesa betidanik izan du. Hurrengo erronka, aspaldian utzi xamar zuen mendizaletasuna egitea izango du. Mexikora abiatuko da, 5.600 metrotako gailur bat egin asmotan.

Bernardo de Dios-ek 62 urte ditu. Aspalditik parte hartu izan du lasterketa txikietan, herri krosetan eta hala koetan. Orain dela 8 urte, Pedro Bildosolarekin batera, maratobietan parte hartzen hasi zen. Aurten lesio baten erruz, soilik 3 maratoi burutu ditu. Donostiako Maratokia maite du bereziki, egoten den partaidetza herrikoia eta giro bikainagaitik. Bere markarik onena, 3 ordu eta 37 minututan du ezarria. Bere ustez maratoi bateko mo-

menturik gogorrenak, 30 kilometroan hasi eta 38. kilometroan doan tarte izaten da. Egin duen maratoirik gogorrena, Granadako Veleta mendira egiten den igoera da, 50 kilometroko froga, 3.500 metroko altuera iritsi arte.

Herri mailan ez dute orain arte inolako aipamen edo zorionik jaso eta badute horren arantzatxo gordeta. Inguruko komunikabideetan ordea, izan dute oartzuna beraiek lorturiko garaipenek eta egingako erronkek. Horren arira, pasa den azaroaren 28an, Pedro Bildosola-k antolatuta, Bernardo de Dios-ek egindako lanari, omenaldi xume bat eskaini zitzaion Ermuko elkartean. Ekitaldi berean, hainbat Iron Man egin dituen Manolo Mendez ermuarra ere omendu zuten.

Asier Ibaibariaga



## Ardo banatzaileak:

Riedel  
Avgstus  
Clos Magador  
Yllera  
Cantosán  
Luis Cañas

Hugel&Fills  
Anima Negra  
Irache  
Cillar de Silos  
Vriego  
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**  
TELÉFONO: 943 17 60 75

## Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com